

## GUK - TROUP

Talde kultural berria eratzeko asmoarekin, *Irugustulogiala* (irudia, gustuak, ideologia eta gizarte-ohiturak) deitu dugun esperientzia da hau. Talde parte hartzailearen irudia eta esperientziak erabiliz sortutako hiri-tribu berria.

HELBURUAK	METODOLOGIA	PARTAIDEAK	IRAUPENA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parte-hartzaileek <b>analisi kritikoak egiteko duten gaitasuna</b> garatzea.</li> <li>• <b>Jarrera parte hartzailea eta sortzailea</b> lortzea.</li> <li>• <b>Parte-hartzaileak Arte Eder Museoarekin harremanetan jartzea</b> haien erreferentzia lekua izan dadin.</li> <li>• <b>Taldeari burujabetasun-tresnak eskaintzea euren garapen askea landu eta proiektuetan balia dezaten.</b></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parte hartzailea, gogoetatsua, analitikoa eta sortzailea.</li> <li>• <b>Adierazpen eta ezagutza-jarduerak.</b></li> <li>• <b>Irudia</b> komunikazio tresna gisa eta edukiak sortzeko erabili.</li> <li>• Gizabanakotik hasita, <b>elkarlana eta talde-lana.</b></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Partaide-kopurua: <b>10 lagun.</b></li> <li>• Adina: <b>14 – 19.</b></li> <li>• Zenbait partaidek museoak antolatutako beste lantegietan parte hartu du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Saio 1.</b></li> <li>• <b>7h /s.</b></li> <li>• Bazkalordua lantegiaren parte da. <b>Denok elkarrekin bazkalduko dugu.</b></li> </ul>





Taldea eraldatuz doa.

## 0. TESTUINGURUA

Nerabeek norberaren irudia gai sortzaile gisa (edukien igorle) erabil dezaten, Arte Eder Museoak proposatutako lantegia da. Gazteek modu kritikoan landuko dituzte euren gorputzarekin ezartzen dituzten mugak eta irudiak eskaintzen dizkien aukerak eta gaitasunak, beti ere, komunikazioa, identitatea, autoafirmazioa eta bestearekiko (gizartearekiko) harremana kontuan hartuz.

Jardunaldi hau YOMIME TUNNING ekimenaren osagarri izango da, baina oraingo honetan talde kontzeptuan, gizartean dauden taldeetan, jarriko dugu arreta: bandak, hiri-tribuak eta kultura herrikoiarekin zerikusia duten bestelako gazte-talde kulturalak.

## 1. LANTEGI IZENA

Lantegi honetan, denen artean tribu edo talde kultural berri bat sortu eta testuinguru jakin batean kokatuko dugu. Hasteko, gazteen inguru hurbileko talde kulturalak identifikatuko ditugu, talde hauen ezaugarriak (irudia, gustuak, ideologia eta gizarte-ohiturak – irugustulogia- ) aztertuko (eta eztabaidatuko) ditugu eta ondoren, lantaldearen irudia abiapuntu hartuta, tribu berria sortuko dugu.

Egunean zehar, talde batek beharrezko dituen ezaugarri guztiak zehaztuko ditugu, estetikoki zein ideologikoki (bi alderdi hauek beti elkarrekin doazela ikusiko dugu) eta ondoren, partaideek euren talde kulturala sortuko dute modu esperimentalean. Honako oinarriko ezaugarriak izango ditu: taldearen interesak bilduko ditu; hausnarketa, analisia, adierazpena eta komunikazioa bultzatuko ditu; eta gazteek taldean lan egiteko duten gaitasuna eta askatasuna garatu eta azalerratuko ditu.

*Nola aztertzen eta eraikitzen dugu taldearen nortasuna?*

## 2. HELBURUAK

Lantegi honen helburu bereziak honako hauek dira:


- Parte-hartzaileek **analisi kritikoak egiteko duten gaitasuna garatzea.**
- **Jarrera parte hartzailea eta sortzailea** lortzea.
- Taldeari **burujabetasun-tresnak eskaintzea** euren garapen askea landu eta proiektuetan balia dezaten.
- Adin txikikoak **Arte Eder Museoarekin harremanetan jartzea** haien erreferentzia lekua izan dadin.
- Jarduera erakargarriak garatzea gazteak antzeko ekimenetan parte hartzera animatuz.

**IA 18 egitasmoko helburuak ere biltzen ditu:**

- Gazteengan **parte-hartzea, sormena eta hiritar kontzientzia bultzatzea.**



Jarduera osatu.



Hiri-tribuen azterketaren eskema.

- Gizarte-agenteen (administrazioa, komunikabideak, etab.) eta gazteen arteko **bitartekaritza-bideak ezartzea**.
- **IKTBak modu konstruktiboan erabiltzea**, modu horizontalean, mundu digitalean jantzia izango den gizartea eraikiz.
- Gaur egungo **gazteen tipologia eta interesak aztertzea** (imaginarioa, nahiak, etab.).

### 3. EDUKIAK

- Talde kulturalak.
- Irudia.
- Ideologia.
- Gustuak.
- Gizarte-ohiturak (ohitura kulturalak).

Saioan zehar landuko diren hainbat gai:

**Nola eraikitzen du talde batek bere nortasuna?**

**Zeintzuk dira talde batek bere imaginarioarekin dituen harremanak?**

**Zerk ematen digu taldeari buruzko informazioa?**

**Zer eragin dute komunikabideek, inguruak eta bizi dugun gizarte-testuinguruak?**

**Nola eraikitzen dira inguruan ditugun irudiak, publizitatea, telebista...?**

**Nola aztertu eta eraikiko dugu taldearen identitatea edo nortasuna?**



Eta ni... zer izango naiz?

### 4. METODOLOGIA ETA EKINTZAK

GUK-TROUP lantegi praktikoa izango da erabat eta jarduerak egin ahala, hausnarketak planteatuko dira. Adierazpena eta hausnarketa uztartzen duten jarduerak proposatuko ditugu eta modu honetan, generoa, nortasuna, ideologia edota transgresioa edo haustea bezalako kontzeptuekin jolastuko dugu.

Jarduera hauen bitartez, gai nagusia ikuspuntu desberdinetatik aztertuko dugu, bizitasuna eta askotariko ikuspegiak eskainiz:

- Brainstorming-a erabiliz, talde kulturalak identifikatuko ditugu.
- Taldeei eta haien ezaugarriei buruzko azterketa eta eztabaida.
- Erreferentziazko materiala ikusi eta aztertu (bideoak, irudiak).
- Antzezpenearekin lotutako jarduerak: saioan zehar norberaren irudiarekin lan egingo dugu –photocall-.
- Jarduera plastikoagoak ere proposatuko ditugu partaideek landu den taldearen irudia edo ideia adieraz dezaten.
- Partaideak eurak esperimendu-gai hartuta, tribu berriak izango duen irudia garatu (fisikoki partaideen arropan bertan eta collage bidez adierazia).



Bruno eta Eder euren tribua nolakoa izango den erabakitzen.



Irati eta Eder euren tribuari buruzko collage-a prestatzen

## 5. LANTALDEA

**Parte-hartzaile kopurua:** 10 lagun.

**Adina:** 14- 19 urte.

**Sexua:** Talde mixtoa.

Lantaldea museoko ekimenetan aktiboki parte hartzen duten gazteek osatzen dute. Taldeko zenbaitek YOMIME TUNNING ekimenean (irudia aztergai izanik urtebete lehenago egin zen lantegia) parte hartu du.

2 dinamizatzaile.

Museoko hezkuntza saileko langile baten laguntza ere izango dugu.

## 6. EGUNAK ETA ORDUTEGIA

Saio bakarra, 2009ko ekaineko larunbat batean.

Ekainak 27.....2.30h (10:30- 17:30).

Bazkalordua lantegiaren parte izango da eta denok elkarrekin bazkalduko dugu.



Janirek, Danik eta Oierrek sortutako tribua.

## 7. KOKAPENA

Bilboko Arte Eder Museoa.

Lantegietarako gela. Espazioa beharren arabera antolatzeko aukera ematen digu.

## 8. MATERIALA

**Materiala:**

- Partaideek paperezko buzo zuri bana izango dute.
  - HKEseko erabilera anitzeko gela.
  - Ordenagailu mugikor 1
  - Bideo kanoi 1
  - Koloretako inprimagailu 1
  - Photocall-erako: argazki-kamera, flashak edo fokuak.
  - Bulegoko materiala (errotuladoreak, boliak, arkatzak, itsasgarria, guraizeak, zinta itsasgarria, gometzak, zatar-papera, folioak, etab.).
  - Aldizkari ebakigarriak.
- Txapak egiteko makina eta material suntsikorra.

**Azpiegitura:**

- Erabilera anitzeko gela. Jardueraren arabera, espazioa moldatzeko aukera dago, zenbaitetan espazio garbiak, bestetan, aulkiak eta



Azken argazkirako buzoak apaintzen.



Janire bere pertsonaia lantzen.

mahaiak dituen lan-eremua eta gainera, hormaren bat saioan zehar landutako ideien edo irudien eta taldearen argazki-irudien euskarri gisa erabiltzeko aukera ere izango dugu.

#### Parte-hartzaileek ekarri beharreko materiala:

- Parte hartzeko baldintza bakarra jarriko dugu, kamiseta zuria eta praka bakeroak jantzi beharko dituzte.

Honetaz gain, parte-hartzaileek gauza jakin batzuk ekarri beharko dituzte. Langai nagusia taldearen irudia izango denez, ahalik eta modu neutroenean janztea eskatuko diegu, hau da, kamiseta zuria eta praka bakeroak. Abiapuntu honetatik hasita, lantegiko edukien oinarrian izango diren irudia eta nortasuna landuko ditugu, esaterako, bi kamiseta zurik ez dute zertan berdinak izan behar eta gainera, esanahi erabat desberdinak izan ditzakete.

## 9. EBALUAZIO-ADIERAZLEAK

Lantegia ebaluatzeko parte-hartzaileekin egindako ebaluazioaz gain, honako faktore hauek hartuko ditugu kontuan:

- Parte-hartze aktiboaren maila (bertaratzea, motibazioa...).
- Gazteen gogobetetze-maila (gazteen ebaluazioa).
- Harreman eta empatia maila.
- Taldearen harreman pertsonalak.
- Taldearen hausnarketa-gaitasuna.
- Sormen-gaitasuna.
- Taldearen espiritu kritiko eta autokritikoaren maila.
- Lantegian egindako gauzen eta emaitzen maila.

## 10. DOKUMENTAZIOA

Hiri-tribuetaz irudiak eta ideologiak aurkitzeko erabili izan ditugun zenbait helbideen estekak:

<http://www.detribusurbanas.com/>

[http://www.frikipedia.es/friki/Clasificaci%C3%B3n\\_de\\_las\\_Tribus\\_Urbanas](http://www.frikipedia.es/friki/Clasificaci%C3%B3n_de_las_Tribus_Urbanas)

[http://es.wikipedia.org/wiki/Subcultura#Tribu\\_urbana](http://es.wikipedia.org/wiki/Subcultura#Tribu_urbana)

Gamero Aliaga, Marcelo. «[La metáfora de las tribus urbanas y tribus urbanas como metáforas](#)» (en español) (pdf).

<http://www.intersticios.es/article/viewFile/2346/1896>



Taldea azken argazkia ateratzeko prestatzen.

*“... zaila da zu zeu izatea aldez aurretik dauden taldeetan ez baduzu lekuri topatzen”.*



## 11. LAN-ERANSKINAK

Hurrengo eranskinean lantegi-saioko bidai orria ikus dezakezue.

**1eranskina:** 1. SAIOA.



Partaide guztien artean sortutako behin betiko tribua.

## 12. KONTAKTUA

**IA 18** irabazi-asmorik gabeko elkarte da. Elkarte honek gizarte zibilaren parte-hartzea eta elkarreragina oinarri duten proiektuak erabiliz, aniztasun kulturala sustatzen du.

**IA 18** nerabeei zuzendutako eta ekintza kulturalaren inguruko ekimenak garatzen dituen elkarte da. IKTak (informazio- eta ezagutza -teknologiak) eta sormena zein bitartekaritza kulturala lantzen dituzten estrategia pedagogikoak erabiliz, gazteei ematen die hitza, hiritar aktibo gisa inguruan duten mundua definitzen parte har dezaten:

### IA18

Aretxaga, 10  
48003 Bilbao  
946 053 468

[www.casitengo18.com](http://www.casitengo18.com)  
[info@casitengo18.com](mailto:info@casitengo18.com)

Fitxa hau Creative Commons 3.0 España baimenarekin erregistratu da. Aske zara zure taldearekin lantegi hau egiteko, baina gogora ezazu ez dagoela formula magikorik eta hobe dela edukiak zure testuinguruaren eta taldearen beharren arabera moldatzea.



<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/legalcode.es>

Fitxa hau Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzarekin egin da.





## 1. SAIOA

### HELBURUAK

Parte-hartzaileek **analisi kritikoak egiteko duten gaitasuna** garatzea.  
**Taldearen jarrera parte hartzailea eta sortzailea** lortzea.  
 Adin txikikoak **Arte Eder Museoarekin** harremanetan jartzea haien **erreferentzia lekua** izan dadin.  
**Taldeari burujabetasun-tresnak eskaintzea euren garapen askea landu eta** proiektuetan balia dezaten.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
05 min.	0 ARGAZKIA (buzorik gabe).	Taldearen irudia.	Argazki-kamera. Fokuak.
10 min.	Lantegiaren aurkezpena. Buzoak jantzi.	Lantegiaren laburpentxoak.	Buzo zuri bana.
5 min.	1 ARGAZKIA (buzoekin).		
30 min.	Ezagutza-jarduerak. Izenaren iniziala. 3 momentu zakura.	Partaideen arteko ezagutza eta harremana.	Post-itak. Folioak eta poltsa.
30 min.	Gorputza-irudia jarduerak. 4 parte.	Mezuak irudiekin. Irudia aztertuz jarrerak ulertu.	Jarduera garatzeko antzez-eremua (antzezlekua eta publikoa).
90 min.	<i>Braimstormig-a.</i> Ezagutzen duten inguru hurbileko tribuak aztertu. 3 taldeen azterketa sakona.	Talde kulturalak, talde sozialak, partaideen lagunak.  Irudia. Gustuak. Ideologia.	Pertsonaien irudiak. Taldeen, tribuen argazkiak. Eztabaidaren eskema horman jartzeko paper zuriak.
05 min.	2 ARGAZKIA (buzoarekin, 0/premisak).	Gizarte-ohiturak (ohitura kulturalak).	
10 min.	Argazkiak inprimatu.	1 eta 2 ARGAZKIAK.	Taldearen 1 eta 2 ARGAZKIEN kopiak.
15 min.	Erritmo-banda. Talde-energiari buruzko jarduera.	Talde-lana.	
50 min.	Talde kulturala asmatu.	Irudia. Gustuak. Ideologia. Gizarte-ohiturak.	
10 min.	3 ARGAZKIA (buzoarekin, talde berria).		
60 min.	Bazkalordua.		Bazkaria (bakoitzak etxetik ekarriko du jana).
05 min.	Argazkiak inprimatu.	3 ARGAZKIA.	
60 min.	Irudia sortu. Talde kultural berriaren ideia gauzatu.	Irudia, nortasuna. Estereotipoak, irudiak. Harremanak.	Pegatinak, arkatzak, koadernoak, mahai-materiala. Buzoak kustomizatzekeo materiala.
15 min.	4 ARGAZKIA (buzoak tuneatuta eta tribu berriaren irudia).		
20 min.	Azken ondorioak. Agurra.	Lantegiaren ideia eta jarduna. Harremanak.	



## 0 ARGAZKIA-----05 min.

Lantegia hasi aurretik talde osoaren argazkia aterako dugu.

Argazki-kamera tripodean utziko dugu lantegiak izango dituen fase bakoitzean enkoadraketa bera izango duten argazkiak ateratzeko. Honela, jarduerak egin ahala, taldeak jasaten dituen aldaketak ikusteko aukera izango dugu eta tribu berriarekin lanean hasteko irudiak eskura izango ditugu.

## Lantegiaren aurkezpena-----10 min.

Buzoak partaideen artean banatuko dira bakoitzak bat jantzi dezan.

Lan-prozesuaren fase desberdinak azalduz aurkeztuko dugu lantegia.

## 1 ARGAZKIA-----05 min.

Denek buzoa jantzita dutela eta bestelako baldintzarik gabe egingo da lehen argazkia.

## Ezagutza-jarduerak-----30 min.

### Izenaren iniziala:

Partaide bakoitzak bere izenaren iniziala idatziko du post-it batean eta soinean jarriko du. Partehartzaile bakoitzak gainontzekoen post-itean eta benetako izena ezagutu gabe, ustez pertsona horri dagokion izena idatzi beharko du iniziala abiapuntu hartuta.

### 3 momentu zakura:

Partaide bakoitzak bere bizitzako hiru momentu garrantzitsu, bereziki gogoan dituen hiru momentu, aukeratu eta paperean idatziko ditu. Momentu bakoitza paper batean idatziko dute eta denak batera poltsa batean sartuko dituzte. Pertsona batek banan-banan aterako ditu paperak eta jartzen duena irakurri ondoren, denen artean momentu hori norena den erabaki beharko dute. Jarduera poltsan sartu diren paper guztiak bukatu arte errepikatuko dute.

## Gorputza-irudia jarduera-----30 min.

4 antzerki-irudi jarduera.

1. jarduera:

Partaide bi aterako dira antzezlekura eta elkarri eskua emango diote. Gainontzeko taldekideek bi pertsona hauen irudia interpretatu eta jarrera aztertuko dute: Zer adierazten dute, zer nolako forma dute? Zein da beraien jarrera? Zer iradokitzen die agerraldiak?

Agerraldia eztabaidatu ondoren, bietako bat eseri egingo da eta aukera emango zaio beste taldekideren bati agerraldi bera antzez dezan, baina bestelako jarrera erakutsiz.

2. jarduera:

Aurreko ariketan egindakoari jarraiki, antzezlekuan dauden bietatik batek bestelako jarrera bat hartuko du, bestelako ekintza bat antzeztuko du eta gainontzeko guztiak, hasierako biek egindakoak iradokitzen dienaren arabera, binakako irudiak edo agerraldiak antzeztuko dituzte.

3. jarduera:

Agerraldia-irudia binakako lanarekin jarraituko dugu. Talde osoa bikotetan banatuko dugu eta bikote bakoitzak aurreko ariketa landuko du. Bietako batek hasiko du ariketa, ekintza edo jarrera bat antzeztuz eta bestea hitzik egin gabe, agerraldian sartuko da berari iruditzen zaiona adieraziz. Bukatutakoan, beste bikotekideak hasiko du ariketa. Bikote bakoitzak 6-10 agerraldi egingo ditu, beti ere, denboraren eta taldearen arabera.

4. jarduera:

Partaide batek jarrera bat hartuko du eta gainontzeko partaideak agerraldian sartuz joango dira denen artean 10 taldekideez osatutako irudia lortu arte.

## Ezagutzen duten inguru hurbileko talde kulturalen azterketa-----90 min.

### Braimstormig-a.

### 3 taldeen azterketa sakona.

Ingurune hurbileko talde kulturalen azterketa egingo dugu. Eztabaidan zehar agertzen diren ideia guztiak apuntatuko ditugu eta horman jarriko dugun paper batean idatziko ditugu eskema modura.

Azterketa honen abiapuntua taldekideen lagunak edo ezagunak kontuan hartuta, taldeei buruzko *braimstorming*-a izango da. Ondoren, ezagutzen dituzten talde horien ezaugarriak aipatuko dira, ohiturak, ideologiak, estetika... eztabaidan ateratzen den edozein gauza komentatuko dugu. Material guztia (ideiak, iritziak, ondorioak...) horman idatziko da hasierako eskema osatze aldera.





Atera diren guztien artean, hiru talde aukeratuko ditugu eta honako adierazleak erabiliz, aztertu eta sailkatuko ditugu:

Irudia  
Gustuak  
Ideologia  
Gizarte-ohiturak

## 2 ARGAZKIA-----05 min.

Tribuei buruzko eztabaidaren ondoren, taldeak tribu berriaren argazkia aterako du.

## Argazkiak inprimatu-----10 min.

2argazkia inprimatuko dugu haren gainean taldeka lan egiteko, taldeek argazki bana behar dute.

## Erritmo-banda-----15 min.

### Talde-energiari buruzko jarduera.

Taldea sustatu eta erritmoa aldatzeko jarduera. Taldea binaka edo hiru binaka banatzen da. Pertsona bakoitzak soinu eta erritmo bat sortuko du gorputzarekin, talde txikien partaide guztien hartean, koordinazioaren bidez eta hitz egin barik, erritmo bakar batera helduko dira. Behin erritmo bakarra izanda beste talde guztiekin batuko dira guztien artean erritmo bakar batera helkdu arte.

## Talde kultural berria asmatu-----50 min.

Talde txikiak. 2ARGAZKIA erabiliko dugu lanerako.

Talde bakoitzak tribu berria sortzeko ahaleginean, talde-irudi desberdina landuko du. Lehen aipatutako lau adierazleak kontuan hartuta, taldearen ezaugarriak zerrendatuko dituzte:

Irudia  
Gustuak  
Ideologia  
Gizarte-ohiturak

Tribu berriak sortuta daudenean, taldearen aurrean aurkeztuko dira. Talde bakoitzak bere tribuak aurkeztuko die gainontzekoei eta tribuak dituen ezaugarriak azalduko dizkie.

Hau guztia egin ondoren, horman jarriko ditugu tribuen ezaugarri guztiak eta denen artean horietako batzuk aukeratuta, denetatik pixka bat hartuta, tribu berria definituko dugu. Talde-lana izango da eta ezaugarri guztiak kontuan hartuta, zentzua izango duen taldea asmatuko dugu.

## 3 ARGAZKIA-----10 min.

Irudi hau erabiliko dugu behin betiko tribuaren irudia eta ideologia sortzeko abiapuntu gisa. Nahi duten irudia osatu beharko dute, ondoren, haren gaineko hainbat alderdi lantzeko.

## Bazkalordua-----60 min.

Parkean bazkalduko dugu.

## Argazkiak inprimatu-----05 min.

Argazki bakarra inprimatuko dugu, baina oraingo honetan handiagoa izango da tribuaren azken irudian errazago lan egin ahal izateko.

## Talde kultural berriaren ideia gauzatu-----60 min.

Landu berri dugun tribuaren irudia eta ideia gauzatuko ditugu. 3argazkia eta buzoak erabiliko ditugu.

## 4 ARGAZKIA-----15 min.

Tribu berriaren azken argazkiarekin jarduerari bukaera emango diogu.

## Azken ondorioak-----20 min.

Partaideen kontaktu-datuak jaso.